

ARTZAINGOA



Ez naiz andietarik gizonen artean,
 Urran bakarrik nago mendien gainean,
 Artaldeño bat daukat an nere menean,
 Arekin bizi bainaiz gustu ederrean.

Asko dira menturaz nitaz urrikaltzen,
 Atsegin zoro batzuz ez bainaiz gozatzen.
 Urrikari ek dauzkat orai eta leen;
 Bakearen gozoa ez dakite zer den!

Mundupean duenak igatzen bizia
 Ardura du berekin izaten auzia.
 Bakea jendetarik urrun igorria,
 Andik kendurik dago mendian jarria.

Artizarra zeruan agertzen denean,
 Goiti noa ni ere arekin batean;
 Sartzera egiten du ilun nabarrean,
 Ni ere itzultzen naiz umore onean.

Choriak eder dira kantari mendian;
 Begira egoten naiz ekier lorian.
 Bazter guzietarik kantuz daudenean,
 Ni nola nindagoke ilun biotzean?

Menditik zoin den eder goizetan argia!
 Bozkariotan nago maiz ari goardia.
 Oeyean agoen, iritar nagia,
 Nola ezagut dirok nik dudan zoria?

Menditik dudanean bagia edatzen,
Jainkoak eman onak orotan ikusten,
Biotza aren gana dut bozik altchatzen,
Gure Aita onari eskerrak biurtzen.

Tratulariak doatz nekatuz bidean,
Zenbat amets ederrez alatur gogoan.
Aldiz artzaina dago mendi urdinean
Deskantsuz lo eginez etchola tcharrean.

Etorri da negua, arekin elurra;
Zelayan eginen dut egoitza laburra.
Ez dayat adiorik egiten, etchola;
Niondik ez naiteke i gabe kontsola!

Negua joan-eta primadera asten;
Bazterrak oro dira belarrez betetzen;
Choriak oianetik kantuz abiatzen,
Bozkarioz artzaina mendirat igaiten.

An dut nere gozoa, an nere bizia!
Yainkoa da bakarrik an nere nausia!
Bertzerentzat diru, jan on, soineko ederrak,
Niri bake gozoa! Jaunari eskerrak!

Nere adiskideak, orai naiz gelditzen,
Asi dudan bertsua emen akabatzen;
Jainkoak osagarri eman dezazuen,

JOANES BERJES,
Saratar laboraria.

*
* *